

MANIFESTU Atzeratua Olertin argitaratu zen lehendabizikoz, 1968ko uztaila-abenduari zegokion III-IV zenbakian. 1971. urtean Hitz Berdeak poema bilduma plazaratuko du Joxe Azurmendik. Manifestu Atzeratua eta beste zenbait poema kanpoan geldituko dira, debekuz, zentsuraren galbae estua.

Txe Gebara poema Che hil eta honen omenez 69an Habanako Instituto del Libro argira atera zuen Poemas al Che liburuan azaldu zen, Juan San Martin-en gaztelerazko itzulpenaz. Euskal Herritik eskeinitako omenaldi poetiko honetan besteak beste, Lete eta Arestiren testuak ere aurki daitezke. Hemen ematen dugun testua San Martinek itzulitakoaren beste bertsioa da. Aldaketak ordukoak dira.

Beude beraz bi poemak dauden daudenean.

Manifestu atzeratua

*Panfleto bat idatzi nizun.
Kondenatu nahi banauzu
injustiziarik kometa ez dezazun.*

3

I

Gure herriak ez dauka kondairarik.

*Pobrea da. Ez dauka
pirata koxkor pare bat,
langile sofritu batzuk,
muga zentzugabe asko,
mila zorigaizto*

*besterik. Ez da gutxi.
Euri gortina batek ixten du
gure kalendarioa.*

*Ez da bilatu kondaira unibertsalen
liburu handietan gure inperiorik.*

*Aginako zero bat zen
gure inperio guztia.*

Ta euskalduna konforme zegoen. Ta libre izan nahi zuen.

*Baina libre izatea
gauza ikaragarri zaila da
Marx bat*

*edo 1789 bat izan ez duen
herri zorigaiztokoarentzat.
Zerekin pagatu behar du?*

*Ikaragarri zaila da.
Ze guk ez daukagu
pirata pare bat, langile on batzuk,
muga txar gehiago ta holako zerbait
besterik. Kalderila hutsa.*

*Baina libre izan nahi dugu,
zer kulpa daukat nik.*

*Eta txeke zuri faltso baten antzean
Gernikako arbola bat asmatu diguten arren,*

libre nahia pekatu balitz bezala,
aitzakiaren bat beharko bagenu bezala,
guk, guztiz ximple, libre izan nahi dugu.
Nahi dugu, besterik ez.
Hauxe baita gure engainu azkenekoa:
libre izan nahia justifika behar dugula
pentsaerazi digute
lehen kanpotik ta barrutik orain.

*Eta San Inazioren, Xabierren, Txurrukaren,
ta Elkanoren ta Habeas Corpusen
ta nik dakit noren
gomendio guztiak biltzen
eta banatzen
saiatu zaitzigu gure kausaren
abogaduok. Libre izateko
inoren baimenik beharko balitz bezala...
Herri izateko inoren gomendiorik
beharko bagenu bezala.
Horiek libertaderik
ekarriko baligute bezala.
Ta ez horiengatik, ezpada
guzti horien kontra
nahi dugu libre izan,
kondaira guztiaren kontra.*

*Oi libre izatea ta handi izatea
nahasi diguten gureak!
libertadea handitasunarekin
edo kondairarekin
edo ta agian norbaitek (oi bi aldiz gaixo!)
moralarekin
defenditzen digutenak!*

*Poema txar batean
deklaratu behar diot
gure gauari ezetz.
Goizaren kontra,
Gernikako arbolaren kontra
ta herriaren alde.*

*Deklaratu behar diot kaleari
gure jauntxoak ez direla
sekula gure herria izan ta izango.*

*Gure jendea pobrea da, tristea da.
Gure jendea ez da poesia batean kabitzen.
Gure jendea ona da. Kulpa gabe
hiltzen da, handitasunik gabe
bizi da, sekretuan maite du
(tabuak errespetatzen ditu),
errezatzen du (tradizionalista da)
engainatu egin dute,
ez da asko fiatzen. Gure jendea
bulgaridade hutsa da.
Inpresionistek bakarrik pintatu dute.
Edozein etnologoren armario batean
dago, eskuliburu batean
deskribitzen da.*

Hau zen nire Gernikako arbola guztia.

II

*Nik ez dut pakerik nahi
ze pakea ez da libertadea
(kasi ahantzia neukan
zaharraren zaharrez).*

*Baina prosaiko aurkitzen dut
hiltzea.*

*Ez nuke hil nahi
Termopilako heroe bat bezala.*

*Ezta korda eman gabeko
erloju zahar bat bezala ere,
zer esanik ez.*

Prosaiko aurkitzen nola edo hala.

*Baina nire herriari
indarra egiten zaio. Niri ez.*

*Ni apaiz pribilejaiatu bat naiz,
aitortu behar diot hauxe irakurleari,*

ze ni ez naiz gizon korriente bat,
esan ohi den bezala, inola ere.

Ni sakratua naiz

ta ez nago seguru baina

zerbait zoragarria

izan behar du horrek.

Eta nire herriari indar egiten zaio.

Getsemaniko aingeru kontsolatzailea

izaten ikasi nuen.

Baina Getsemanin ez dut inor kausitu,
denak kalbarioan.

Indar egiten zaio.

Pakea predikatzen ikasi nuen,

denak kalbarioan,

indar egiten zaio,

hau zen Gernikako arbola.

Ta nork askatu behar digu herria?

Zaharrak zahar dira,

gazteak gazteegi.

Libertadea baino nahiago dute

ezkerra intelektualek.

Langileak eskolara ez baino

klasera hotsegiten dituzte.

Artistak ederra sortzeko daude.

Baina libertadea ez da eder,

ez dago sindikatzerik,

ez dago ezkerrean.

Etorkizunean dago.

Gure partketan ez da inor gelditu

libertadearendako.

Handik Aitor, Amaia, Lelo

eta Lirelo

eta Gernikako arbola

eta mito guzien alienazioak.

Baina nork askatu behar digu herria?

herriak berak ez bada! Eta denok

gara herria.

*Denok gara herria.
 Mito guztiak narraturik,
 ez zaigu gelditzen
 Magdalena Larralde
 (bertso bat eta gure kondaira guztia)
 besterik.*

*Indar egiten zaio,
 zeinek egin behar dio libertadea?*

*Bitartean, nik egin ez nuena
 egin gabe gelditzen zaio
 herriari. Azkenean neuri
 (eta zeuri, maitea).*

*Inork erein ez duen eguzkia,
 inork altxatu gabeko horizontea,
 inork kontsolatu nahi ez zuen arratsaldea
 gabe gelditzen da.*

*Itsaso gabeko plaia guztiakin
 zerurik gabeko izarrekin,
 azkenik ez duen
 esperantza nakatu ahul abaildu batekin.*

*Libre ezinda
 ta etsitzeko adore falta itsu
 denegati ximel agortu batekin.*

*Horrekintxe bakarrik
 inork sinistu ezin dituen
 ipuin hamaika gorabehera.*

III

Libre izan nahi dugu.

*Guk, haragi honek, esperantza honek
 nahi du libre.*

*Alferrik pasiatzen dira gure filosofoiak
 xinpletasun ximple hau sublimatu nahirik
 abrakadabra baten bila,
 misteriotsu asko, ideologiaren jardinetan.*

*Haragi honek nahi du libre,
 ez filosofia batek, ez klasetasunak,
 ez teologiak. Pinua pinudiak*

definituko balu bezala,
 goardasolak euria,
 morena batek eguzkia.
 Edo gurutzean ebanjelioa
 hil balitz bezala.
 "Ni naiz esperantza" bat
 hil zen gurutzean.

Gizona ez da ideia bat.
 Gizonak ez dira eskubide sorta bat.
 Eskubideak ez dira
 argumentu bat edo deklarazio bi.
 Gizonak dira.

Zergatik ez aitortu:
 Mixerable banaturik gabiltz,
 mendian otsoak bezala.
 Gu, txindurriok zeruaren azpian,
 argonauta ustetan.
 Konstelazio bat delakoan bakoitza,
 zigarroa bezala mixto batekin
 pizten delakoan libertadea.

Hola dio Jerusalemgo Talmudean
 Rajanam rabinoak: ez zen Israel desterrura joan
 hogeitalau sektatan azpaldu zen arte.
 Merezi ditugu desterru bi ta hiru.
 Ez ote zuen ba Prometeok
 harrapatu egin behar izan sua?
 Ez merezi. Ez filosofiekin,
 kondairarekin, erregekin merezi.
 Noren zeren aurrean gero?
 Erotuko ditugu guk Chailloten eroak.

Haragi hau ez da kondaira.
 Gizon hau ez da Txurruka,
 aspertu egingo litzateke
 Londoneko plaza baten
 Espainiaren ohorea lekukotzen.
 Libre nahi luke,

ez monumenturik.

*Ez da Elkano: nahiko mundu
zaio gure mendiarte.*

*Zumalakarregi? Tonto baten moduan
hil zitzaigun azkenean hura ere.*

*Preso daukagu oraindik Zegamako elizan
berpizt ez dakigun,
esan ez dakigun bala batek
asesinatu zuela libertadea.*

Gizon honek ez du hil nahi.

Haragi hau ez da Gernikako Arbola.

*Ez da arraza bat, ez da sozialista,
ez da sakratu, ez da ezer,
hiltzen den haragi da
ta ez du hil nahi.*

Eta ez du hilda bizi nahi ere.

Libre nahi du.

Bai, behinola batek denetik sinistu zuen:

Gernikako arbola

*(eta santutzat ere bazeukan eduki
nahiz ez den fedea sekula izan
baten espezialidadea),*

*Irainetako nagusia, Abandoko
txapela, Campionen romantizismoa,
langileri klasea ta humanismoa
ta unamunismoa*

*(ta haren euskaldunondako
paradojak)*

*(baina honez gero ez digu Iparragirrek
arparik gehiago joko)
eta filosofia guztietako lekzioak
eta etika lorero guztiak
ta Europa etabar.*

*Abar ere sinistu zuen,
zerbait sinisteagatik,
baina gizona diferente zen beti.
Sinistu, mutilak
umeak zekazkien zikonía*

*ta hiru Erregeak ta Esteilakoa ere,
 Foruak afaldu zizkiguten hura,
 ta edozer gauza sinistu du
 esperantza mugagabe batekin
 herri honek
 eta gizona zerbait diferente
 gelditzen zen.*

*Bat plaian etzaten zen
 tripaz gora
 eta begiak ixten zituen
 zerua bajatzeko.
 Baina bere erriberan
 ez zeukan herri pobre bat besterik,
 herri trixie bat,
 umeezin beti ona izan den
 animalia handi maltso bat gaixo bezain triste.
 Xentimoka pentsatzen duen herria,
 ta libre nahi ilunabar bat bihotzean
 dakar nekez ekartzen.*

*Baina libertadea ez merezi,
 irabazi egin behar da,
 ez kondairaren, ezpada
 gizonaren eta
 etorkizunaren aurrean.
 Ta gure herriak ezin du irabazi.*

*Ta ezin irabaziko du ere, baldin eta
 gure filosofoek ikasten ez badute
 ez duela eguna erlojuak egiten.
 Baldin eta teologoek gizona ez dela
 elizako alxia edo serafin bat
 edo parabola bateko ardia ez badute ikasten.
 Edo zeruko bidea goitikoa dela pentsatzen badute
 ebanjelioak aldapatsu dela diolako.
 Baldin gure radikalak radikalinski badira.
 (Lainoa da euriaren radikalitasun guztia,
 ez trumoi).*

Edo ta gure ibarrak Arkadia direla uste badugu,
ta gure errealistak garaiz aurkitzen ez badute
errealistago zela Printzipea Machiaveli baino,
eta Jesukristo bainoago Judas,
ta errealdadea Marx dela ta ez haren liburua,
eta Iparragirre ta ez haren kitarra.

11

Baldin gure herriak ikasten ez badu
Gernikako arbola haritz normal bat zela
(haritzak ote dira ba behar ditugunak)
ta euskal herria edozein herri bat.
Ta gure langileek ikasten ez badute
gizon direla ta ez kasta sakraturik
ezta madarikaturik ere,
ta euskal nekazariak enteratzen ez badira
aspaldian hil zela Virgilio
(edo nekazarien ardura dutenek,
zeren eta zer kulpa dute beste horiek
jaio zenik ere ez badakite)
ta gure poetek eta idazleek ikastez ez badute
hizkuntza ez dela Orfeoren flauta.
Ta nafarrak enteratzen ez badira
bi Nafarroa daudela,
honez gero hiru ta lau ez badaude
eta eta eta
(etcetera esan nahi dut noski)
zahar eta berri ta denok bat
Erromako zubi koloretsu batean.

Orduan bai, eguzki zaharrak
argi berria emanen du.
Astronomoak ez dira enteratuko,
ezta eguzkia bera ere,
baina gu bai.
Eta nahikoa dugu hori.

Hau guztia esan ta gero
 ez da faltako oraindik
 ez dugula maite aberria
 botako digunik. Aberriaren maitasuna
 (goizeko ordu bietan ari natzaizu idazten)
 poltxikoan eramango balitz bezala.

Txe Gebara

(euskaraz ikusita hiltzen)

1

*Ez dizkiat madarikatuko
hire hiltzaileak.*

*Hortarako pagatu zituztek,
etxea mantentzeko behar zuten
jornalarekin. -Nire herriak ere
halakoxeak*

*zeuzkak asasinoak. Asasino pobre
gaizki pagatuak, asasino umilak.*

*Izerdia zeukatek bagiratuan,
uniformea erantzi
eta ohe ondoan*

botak

isilik gelditu badira.

*Nire herriak bere izerdiarekin
pagatzen dik
bere asasino horien jornala.*

Ezin madarikatu dizkiat.

*Eguneroko asasinoak, ordea:
etxean egoten direnak
atariko itzalaren freskoan.*

Horiek bai.

*Transistoreak hil hautela iragartean
zurbildu ere ez direnak.*

Poliki-poliki

eskuineko whisky basoa

mahatnean utzi, hamakatik,

eskuina ezpainetan pasa,

ixtanteko dardara disimulatzeko,

ahots itzali baten keinu mutuz

morroin gorbatatua

egunkariak erostera bidali dutenak.
 Ezer gehiago ez. Floridan,
 Washingtonen. Madrilen,
 Bilbon.

Hil, edozein soldadu kobarde hiltzailek
 hil hau Bolibian.

Asasinatu, asasino zintzoek egin haute
 beren jardinetako itzalen freskotik,
 mundu guzian. Gure mundu guzian.

2

Bai, arratsalderantza doa gizona
 mendebale zaharrear.
 Erromantikoen eta jauntxo xentimarien
 horizonte biek hartu dute
 preso.

Borroka, ordea, borroka da:
 ez da erromantikoentzat. Ez dakar
 dibidendorik.

Eta joan doa gizona, borrokan doa.
 Nekatuta daude horizonteak historian
 begi mugen gaineraino,
 nekatuta dago gizona.
 Tiroka doa.
 Borrokaz doa.
 Anaien artean anaia bila doa.
 Heriotzetik dator.

Askò sofritzen du.
 Ez da ailegatzen.

Gizon asko eta herri zapaldu asko sofritzen zuen gure
 Gebararen esperantza ezin desesperatu honek.
 Orain kito. Mertzenari batzuek hil dute. Mer
 katariek.

Negar bat eskatzen zaie gero poetei.
 Zaharregia da gizonaren negarraren historia).
 Hitz ederren kontsolamendu erretorikoz
 bere buruak engainatu beharrez,
 ez haizela hil, esan, eta baietz,
 hil egin haizela,
 gizon bat hintzala
 historia eterno bat sofritzen zuena,
 esperantza eterno bati nahi eta ezin
 eutsi ziona, hintzala
 ikusi nahi ezta hiltzen haute paperean poetek.
 Ez ideia bat. Balazoka hil dutena
 ez da izan doktrina bat.

(Asko sofritzen du gizonak
 bere haragia
 eta, noizpait, gero,
 hil egiten da).

Ez da heriotze homeriko bat ere izan
 sikeran. Errealitatea
 miseria triste bat da beti pobreentzat.
 ("Mundu guziko tristeak: elkar gaitetz!")
 Zer dago iada espero izaterik?
 Zerutik jeisten ausartzen ez diren
 trumoirik gabeko laino
 kartoizkoak
 zeuzkagu tragediaren gainean.
 Esperantzaren derrota batean jausi haiz
 triskatuta. Orain
 kuraiarik gabe doa -noranahi- gizona.

3.

Orain, hemen,
 kotsola ezazue
 karitatez
 iluntasuna.

*Kontsola ezazue
itsasoa, basoak,
mendi beroa eta
lau aspertuak.
Karitatez,
zuek,
ofizioz onak izaten zaretenok.
Zintzook.*

*Kontsola ezazue gizona.
Esperantza. Kontsola Ifarra
eta Hegoa. Euskadi.
Espainia. Europa doktrinari galdua.
Kontsola ezazue gure Bidasoa
karitatez. Arboletan
gelditu dira Kuban
bihotzak. Udazkenean
zintzilik orbel dago aspaldi
hire jendea.
Esperantza asasinatu dute.*

*"Mundu guziko tristeak: elkar zaitetzte!"
entzun ezazue denok horizontean
tiro baten zuloa
ezin joanda.
Libertatea bakarrik da internazionalista.*

4.

*Ez geunden gu proletarien alde
etorkizuna heurek ei dakartelako, -ei,
ai, ez.*

*Ezer ez dakartelako bai,
ahulak direlako
eta esku hutsak, bai.
Esperantza oraino galdu ez dutelako
eta eskubideak aspaldi bai.*

*Ez gaude, bai.
Absurdu batetan gaude,
esperantza batekin eskuan. Beti:
libertatearen alde.
Ez ote dira berdinak
libertate guziak?
langilearena, herri txiki zapalduarena.
bakoitza bakarrik hiltzen da bere heriotzean.
Bere borrokan bakarrik askatzen da bakoitza.*

17

5.

*Guk ez genuen testu batetan ikasi
langileak mimatzen, fede bat bezala.
Ez genuen liburuetan ikasi
ezkerrean egoten: bihotzaren aldean
jarri ginen, basta.*

*Horixe duk gure problema, Txe.
Hemen Europan gaudek.
Hire heriotzaren propietari filosofikoek
ez diate uzten gurea izaten.*

*Hemen denak doktrina bat zeukak.
Lanak, fabrikak. Batelak, ibaia.
Euriak zeru bat goian zeukak,
behean garia. Progresoak bere Partidoa.
Dena teoria beten kajoietan.*

*Bakarrik libertateak ez zeukak bere
gizonik -paper juraduetan
babestu duk. Papera duk.*

6. Ez dute hil teoria bat orrialde batean.
 Txé Gebara asasinatu dute. Mendian.
 Espainiako Alderdi Komunista ez da enteratu.
 Ez da sekula enteratuko.

Ibaiaren azpikaldeko
 anaia langilea,
 asasinatzen ari da, euskal mendiotan,
 Gebarako lur Ifarra.